


Astean behin, asmatu gertukoa



ALEAk lehiaketa berri bat izango du martxan datozen asteotan. Lehiaketa honen bidez, gertuko ekoizleak zein produktuak ezagutaraztea eta gure lurraldea hobeto ezagutzeko aukera eskaintzea bilatuko dugu. Horrenbestez, *Astean behin, asmatu gertukoa* izenburupean, ostiraleko hamar galdera berri proposatuko ditugu.

Aste bakoitzean zehar galdera gehien asmatzen dituenak jasoko du aste horretako saria, eta berdinketarik dagoen kasuetan, erantzun zuzen gehien eman dituztenen artean zozketa bidez erabakiko da irabazlea.

Jarraian jasotakoak izan dira azken astean zehar erantzun behar izan diren galderak; eta horiekin batera erantzunak ere eskaintzen dizkizugu. Aste honetako lehiaketa parte hartu nahi izatekotan, webgunean sartzea besterik ez duzu. ■■■

Soluzioak:

1.A - 2.B - 3.C - 4.A - 5.B - 6.A - 7.B - 8.C - 9.B - 10.C

Lehiaketan parte hartu nahi baduzu, astero galdera berriak aurkituko dituzu:

alea.eus/lehiaketa



1. Non ospatu zen Gasteizko Kantari ikuskizunaren lehen edizioa?

- A) OIHANEDER EUSKARAREN ETXEAN
- B) ALDE ZAHARREKO UR-BILTEGIAN
- C) DENDARABAKO VITAL FUNDAZIOAREN ARETOAN

2. Zenbat biztanle ditu Aramaiok?

- A) 714
- B) 1.442
- C) 2.257

3. Zer lelo zabaldu zuen GEU Elkarteak 2017an euskararen erabilera sustatzeko?

- A) GEUREKIN EUSKARAZ
- B) GOIAZEN
- C) HAS GASTEIZEN

4. Asparreneko zer gaztelurentzat eskatu dute ondare kultural izendapena?

- A) MARUTEGI
- B) MUÑATOIZ
- C) LATSAGA

5. Zein urtetan bihurtu zen ofizialki San Prudentzio Arabako patroia?

- A) 1878
- B) 1644
- C) 1921

6. Nondik entzungo da San Prudentzioko erretreta?

- A) IRADIER ARENA
- B) PROBINTZIA PLAZA
- C) AIHOTZ PLAZA

7. Non egin nahi ditu Aixearrek parke eoliko bat jartzeko haize-neurketak?

- A) BASTIDAN
- B) ARAMAION
- C) ARGANTZONEN

8. Hamabi hilabetetan zenbat jarduketa egin nahi ditu Gasteizko Udalak Alde Zaharra biziberritzeko?

- A) 125
- B) 1312
- C) 24

9. Azken informazioen arabera, zein ikasturterako irekiko da Salburua Institutua?

- A) 2023/2024
- B) 2026/2027
- C) 2030/2031

10. Non jokatu da Arabako Binakako Bertsolari Txapelketaren finala?

- A) GASTEIZ
- B) ARGANTZON
- C) LEGUTIO